

Emakumeentzat ikastaroa taldean parte hartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko

■ Urtarrilean eta otsailean izango da ikastaroa ■ Urtarrilaren 3 arte da izen emateko epea.

ONGINTZAKO Berdintasun Sailak zenbait ekimen martxan jarriak ditu emakumeen inguruan. Horietako bat emakumeentzako ikastaroa da, jende aurrean hitz egitea eta taldean parte hartzea lantzeko. Berdintasun Sailak dionez, pertsonak sexuaren arabera hezi gaituzte: gizonezkoak etxetik kanpora lanean aritze-

ko eta emakumeak etxeko lanetarako. Berdintasun Sailaren iritzirako, horrek ekarri duena da emakumezko askok premia sentitzea sektore publikoan aritzeko hainbat gaitasun lantzeko.

Ikastaroa teorikoa eta praktikoa izango da, eta urtarrilean eta otsailean egingo da. Astean bi ordu emango

dira, asteartean, arratsaldean edo iluntzean: arratsaldean, 14:30etatik 16:30etara; eta iluntzean, 19:30etatik 21:30etara. Izen ematea 6 euro da. Informazio gehiago nahi duenak deitu Ongintzara: 943-557854.

Logo lehiaketa
Berdintasun Sailak beste zen-

bait inizatiba ere martxan jarri ditu eta horietako bat logo lehiaketa da. Sail horrek Berdintasun Kontseilua izeneko organo kontsultiboa sortu du eta horren irudia aukeratzeko logotipo lehiaketa egingo du. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 13an bukatuko da eta saria 600 eurokoa da. □



Karobi elkarteak tuteko sarituak eta soziedadeko arduradunak, larunbateko sari banaketa ondoren.

Elkarte betean ospatu zuten Karobiko 2garren urteurrena

LARUNBATEAN egin zuten Karobi elkartearen 2garren urteurrenako afaria. Soziedatea lepo bete zen eta giroa ere bero bero egon zen. Afal ondoan elkarteak Tute Txapelketako sariak banatu zituzten. Aurtengo Irabazleak Arantxa Torres eta Angela Velasco izan dira; bigarren, Bautista Cuenca eta Poli Moreno; hirugarren, Rafa Albistur eta Jose Garcia; eta laugarren, Gerardo Diez eta Santi Rada.

Karobi elkarteak aurrean bete ditu bi urte, eta bazkideek esan digutenez oso gustora daude daramakien martxarekin. □

Iñaki Loiarrek irabazi du aurrean ere Txantxangorriko ehiza txapelketa

ATZO eta atzo zortzi jokatu da Txantxangorriko 24garren ehiza txapelketa, Epele Errekan eta Usoko Errekan. Iñaki Loiarrek irabazi du txapelketa iaz bezalaxe; bigarren, Juan Mari Ugalde gelditu da; eta hirugarren, Emilio Crespo. Lehenengo egunean puntan ibili zirenak beste batzuk ziren, baina, atzo Beraza, Otaegi eta Artolak behera egin zuten. Hernaniko lehenengo hirurak eskualdeko txapelketara joateko aukera daukate. Noiz izango den zehazteko dago oraindik.

Sari banaketa afaria urtarrilaren 17an egingo da Txantxangorri elkartearen. □



Eskubitik Iñaki Loiarre, Juan Mari Ugalde, Carlos Lopez (antolakuntzako) eta Emilio Crespo.

BERTSOLATA

Urte Zaharretako erronda bihar

BIHAR, urte zahar eguna, erronda egingo da Hernaniko kaleetan barrena, Ohitura Zaharren Abesbatzak antolatuta. Urteroko moduan kantuan eta bertsoetan ibiliko da koadrila. Irteera 17:30etan Udaletxeko arkupeetatik. Errondan irten nahi dutenak ordu laurden lehenago azaltzeko dei egin du Ohitura Zaharrak Abesbatzak; 17:15etan alegia. Ekitaldi honek despedituko du urtea eta baita Bertsolata ere. □

Bote txapelketa gaur Zaharren egoitzan

ZAHARREN egoitzan ekintza mordoa antolatu dute gabonetarako. Gaur, Bote Txapelketa dute 17:30etan. Bihar, berriz, igel txapelketa 10:30etan eta Urte Zaharreko bingo berezia arratsaldeko 17:30etan. □

FUTBOLA

Hernanik 2 Oartzunek 2

GORENGO taldeak 2-2 berdindu zuen larunbatean Oartzunen kontra, Zubietako zelaian. Partidua maldan gora jarri zitzaizen hernaniarrei, 0-2 galtzen hasi baitziren. Azkenerako erremontatzea lortu zuten, ordea, eta urtea puntu bat gehiagorekin bukatu dute, eta lau jardunaldi galdu gabe daramazkitela. Hernaniarren golak Blanchek buruz eta Portillok 40 bat metrotatik. Berdinketa honekin sailkapeneko erdi parean dago Hernani, lehen postuetatik urruti, baina, aspaldiko lasaia. □

Ipuiak Biterin

UMEENTZAKO ipuiek kontatuko ditu Itziar Zubizarretak gaur Biteriko liburutegian. Bi sesio izango dira: lehenengoa 11:00etan, 3-4 urteko haurrentzat; eta bestea 11:45etan, 5-7 urte artekoentzat. □



emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena

JENDAUURREAN HITZ EGITEKO IKASTAROA

“Taldeen partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko”.

Emakumeei zuzendua

Urtarrila eta otsailean: Asteartetan

Bi ordutegi: 14:30 - 16:30

19:30 - 21:30

Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: **Urtarrilaren 3a**

LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
“Berdintasun Kontseiluaren Logoa”

Oinarriak eta informazioa:

Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54



MUGI ZAITEZ !!!

ERABILI ZURE TXARTELA ETA BERRIAK
ELKARTEKO ZOZKETETAN PARTE HARTU.



SARIAK EZ DIRA
BUKATZEN,...
LORTU ZUREA!

Promozioa:
Azaroaren 15etik
urtarrilaren 15era.

“BERRIAK” HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA

brintza

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieta 15
Tel. 943 33 12 67
Faxa.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK, INBERTSIOAK

BOLEIBOLA



Hernaniko jokalaria Ligako partidu batean.

UPV-Hernanik irabazi du Andoaingo txapelketa

HERNANIKO boleibol taldeak irabazi du Andoaingo txapelketa. Hernaniarrak ligatik kanpora daude, partidu batetik bueltan istripu larri hura gertatu ezkerotik. Asteburuan gogo biziz joan dira Andoaina jokatzera eta teoriar beren gainetik dauden taldeak menperatuta lortu dute txapelketa.

Final gogorra
Hernaniarrak lehen partidua galdu egin zuten Soriaren kontra: 2-1. Bigarren partidua, ordea, irabazi 2-0 Atletiko SSi eta finalerako sailkatu ziren. Finalean UPV Berezi Gasteiz talde gogorari irabazi zioten hernaniarrak 3-1. Jokoak: 25-17, 25-16, 23-25, 25-19.

Txapelketa Oscar Ovejero zenaren omenez minutu bateko txalo zaparradarekin hasi zen eta hernaniko taldeak ere berari eskaini dio garaipen hau. Taldekideek diotenez "Liga utzi ondoren gure helburua Andoaingo txapelketa zen. Oscar Ovejero zor genion garaipena eta lortu dugu". □

'Drogak larrugorritan' Gazte Txokoan

GAZTE Txokoa martxan jarriko da berriz ere urte berriarekin batean. Hernaniko gazteentzako irekia dago Gazte Txokoa, (Aristizabal Kalea 5). Datorren ostegunean topagunea dute, ostiralean taile-

rrak, larunbatean topagunea eta ostiralean merendola.

Drogez informatzen
Datorren astetik aurrera drogak eta drogek utzi lezazketen ondorioak ezagutzeko ekin-

tzak antolatu dituzte. Erakusketa bat egongo da ikusteko *Drogak larrugorritan* izenburua duena. Horrez gain, droga gai duten pelikulak ere botako dituzte hilabete guztian zehar, Gazte txokoan bertan. □

Incansables txaranga urte berriari ongi etorria emateko

URTE berri egunean, goizeko 01:00etan, Incansables txaranga ibiliko da Hernaniko kaleetan barrena. Urtea saltoka eta dantzan hasi nahi duenak izango du aukera, beraz. □

Arrigoain jatetxea

Urtarrilaren 1etik 15era itxita egongo da. Urtarrilaren 16tik aurrera irekita.

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97

JANTZIDENDA LOHER

Emakume Gizon eta haurrentzat



Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Elkano 1, (Eliza atzekaldean)
Tel.943 555 003 - HERNANI



HERNANI BIDAIAK
Urbieta etorb. 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teleline.es
Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.



OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509



TXIMELETA OPARIAK
Txirrita 10
943 55 23 95
HERNANI



Hernaniko Kronikako laguntzaile:

ORAUNE PROMOCIONES



Goiz Argi taberna orain gutxi ireki dute berriro.

Irlandari buruzko erakusketa ostegunean Goiz Argi tabernan

DATORREN ostegunean Irlandari buruzko erakusketa egongo da Goiz Argi tabernan, Nafar kalean. Irlandako argazkiak, aldizkariak eta bestelako materiala egongo da egun osoan. Arratsaldeko 19:30etan diapositibak botako dituzte eta 22:30etan *En el Nombre del hijo* pelikula. Goiz Argi oraintsu ireki berri dute, eta jabeek esan digutenez oraindik taberna bezala funtzionatzen du, baina, lasten hasiko dira jaten ere ematen. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

►Taxiak:
943 550093
►Udaltzaingoa:
943 333288
►DYA:
943 464622
►Anbulatorioa:
943 006666
►Jokalaria anonimoak
943 331103

FARMAZIAK

ASTELEHENA

►Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
►Gaez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia 42
☎ 943 361774

ASTEARTEA

►Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
►Gaez: Oa
Usurbil. Poligono 1, 1
☎ 943 376076

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu, adineko pertsona bat zaindu eta etxeko-lanak egiteko. Interesatuak deitu (20:00etatik 22:00etara): **943 553766**



Mari Karmen Aiestarani tokatu zaio Itxaspe arrandegiko xextoa. Zerbaki saritua 0002. ZORIONAK



ITXASPE

ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365 Mobila: 653 74 10 97 20120 HERNANI



Ondo pasa Eguberri jaiak!

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu bezero eta herri-tar guztioi.

Kale Nagusia 19
943 55 23 98
943 55 26 99
HERNANI